

→ AMESLARIOK... ZER BERRI?

ASTEKARIA: 59. alea

DATA: 2026/01/09

GUREAN

SAHARATIK GERTUAGO

SEADen Lagunen Elkarteak urteak daramatza Saharako errefuxiatu kanpamentuetara bidaltzeko janari bilketa egiten eta aurten ere laguntza eskatu digute. Helburua Saharako errefuxiatu kanpamentuetako bizi kalitatea, osasuna eta ongizatea hobetzea eta, era berean, elikadura urritasunak sortzen dituen gaixotasunak gutxitzea da. Horretarako, ikastolan jasoko ditugun elikagaiak hauek dira: hegaluzea eta sardinak oliotan, pasta, arroza, azukrea, lekaleak eta konpresak.


Parte hartu nahi izanez gero, helarazi, mesedez, elikagaiak zuen seme edo alabaren tutoreari urtarilaren 12tik 23ra. Anima zaitzete!



GURE INGURUAN

LURRAREN ARGIA- TAILERRA

NOIZ: URTARRILAK 10
NON: SAN TELMO MUSEOAN



Familiantzako tailerra da eta haurren adina bost urtetik gorakoa da. Tailerrean zehar, plastilinzako irudi txiki bat erle-argizarizko kandela bihurtzeko artisau-prozesua aztertuko dute: modelatzea, silikonaz moldekatzea, argizariz hustea... Parte-hartzaileek beraien sorlanak osatuko dituzte urratsez urrats, familia osoarentzako sormenezko eta lankidetzazko giroan.

Matrikulazio azken eguna: urtarrilak 10 (16:59) eta prezioa: 5 €

BAZENEKITEN?



KANTUJIRA DAGOELA LOIOLAN LARUNBATEAN?



Eguerdiko 12:00etan Izarraitz tabernan "Loiola Kantuz" antolatu dute.

**ZUEN PROPOSAMENAK
HONA BIDALI:
melvira@herriametsa.eus**